



OROIMENAREN HARRA

BATXILERGOA UNITATE DIDAKTIKOA

IRAKASLEAREN GIDA



Eskerrak eman nahiko nizkieke lan hau irakurtzen denbora hartu duten lagunei: Bakartxo Arabolazari, Josean Buenori eta Oihana Muxikari. Mila esker zuen aholku eta proposamenengatik. Udane Ansari, lan hau txukun-txukun jartzeagatik, eta ezin ahaztu nezake Amaia Serrano, bere lanerako atea ireki eta hainbat jarduera osatzeko testu egokiak eta material paregabea eskaintzeagatik.

Egilea: Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi

Diseinua eta maketazioa: Udane Ansa Iragorri

Zuzenketa lanak: Amaia Serrano Mariezkurrena

AURKIBIDEA

OROIMENA	5
NON ETA NOLA	5
ONARRIZKO ZEHAR KONPETENTZIAK	6
ONARRIZKO DIZIPLINA BARNEKO KONPETENTZIAK	6
ETAPAKO HELBURUAK	7
EDUKI MULTZOEN EZAUGARRIAK	7
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	8
SEKUENTZIA EREDUA	9
TESTUINGURU HISTORIKOA	11
UNITATE DIDAKTIKOA	13
1. MEMORIAREN ATEA ZABALIK	13
<i>OROIMENA, ORAINA</i>	13
<i>AHANZTURAREN ZINGIRA</i>	14
<i>MARAVILLAS</i>	15
<i>GOLGOTA</i>	16
<i>OROIMENAREN HARRA</i>	18
<i>ISILTASUNA NAGUSI</i>	21
<i>BOOKTUBERBOOM</i>	22
<i>IDENTITATE GALDUAREN BILA</i>	23
2. ZAURIAK, ITXI ALA IREKI?	24
1. <i>FLORECICA(S) DEL CAMINO</i>	26
2. <i>ETA EUSKAL LITERATURAN ZER?</i>	30
3. <i>ZAURIAK, ITXI ALA IREKI?</i>	33
BIBLIOGRAFIA	37



OROIMENA

Oroimenaren harrak zenbait gogor eutsi ohi dio; beste hainbatek, berriz, nahiago izaten du beren oroitzapenak ahanzturaren zingirara bota. 1936ko altxamenduak ahaztu ezinezko gertaerak ekarri zituen gizon-emakume askoren burura, inoiz ahaztu ezin izan zituztenak eta beldurragatik isilean gorde behar izan zituztenak; beste batzuek, berriz, gertakari haiek ahaztu egin nahi izan zituzten betirako.

Bizipen horietako zenbait Oiartzungo Kattin Txiki elkarteko kideen etxeetan entzun izan dira, eta belaunaldiz belaunaldi transmisio bidez jasotakoaren ondorioz, garai horretan gertatutakoak isilarazi eta ezkutatu beharrean, gaur egunera ekartzeko beharra ikusi zen. Etxe batzuetan gehiago jakiteko gogoia piztua da, izan ere, askok eta askok ez baitzuten izan benetan gertatutakoaren inguruko berririk. Beraz, egiari zor, belaunaldi berrien ardura da garai horretan isilarazi eta ezkutatu zuten horren inguruko egia jakitea eta bilatzea. Azken batean, errepresioa jasan zuten horien omenez justizia egitea.

NON ETA NOLA


Unitate didaktiko hau 2.batxilergoan aurrera eramateko pentsatua dago. Historia, euskara, gaztelania nahiz filosofia irakasgaietan lantzeko egokia da, beraz, diziplinarteko lana izan daiteke. Irakasleen lana errazte aldera, ariketak progresiboki irakasle guztien artean landu daitezke, aste batean “Memoriaren astea” antolatu, eta irakasle bakoitzak proposatu diren jarduerak egiteko tarteren bat eskaini bere irakasgaietan.

Jarduera hauek bi alditan edo bi fasetan bana daitezke: lehena, *Memoriaren atea* *zabalik*, eta, bigarrena, *Zauriak, itxi ala ireki?* Bi zatiak elkarrekin lotuak daude, baina ez ditugu zertan biak egin. Beraz, unitateak aukera ematen du nahi den adina sakontzeko, ikastetxe bakoitzak erabakiko du noraino landu nahi duen proposatzen dena. Hala eta guztiz ere, Kattin Txikirentzat benetan interesgarria izango litzateke bukaeraraino, hau da, *Zauriak, itxi ala ireki* jardueran proposatzen den eztabaidaraino bertaraino iristea, adin honetako ikasleentzat egokia baita. Gainera, heldutasun nahikoa dute gaiaren inguruan hausnartzeko.

Bestalde, ez dira zertan jarduera guztiak egin helburuetara iristeko, batzuek gaurkotasuna gal dezakete (*Oroimena, oraina*), beste batzuk aukerakoak izan daitezke (*Oroimenaren harra, Florecica(s) del camino, Eta euskal literatura zer?*) sakondu nahi denaren arabera, ... Irakasle taldeak erabaki beharko du zeintzuk diren erabiliko dituztenak, guk hainbat jarduera proposatzen ditugu, eta bakoitzak ikusiko du biderik egokiena zein den (jarduerak egokitu, kendu, gehitu, ...).

Lan hau genero ikuspegitik eta genero ikuspegia lantzeko helburuarekin sortu da, ezinbestekoa iruditzen baitzaigu emakumeek 36ko Gerran izan zuten protagonismoaren gainean jardutea. Ikuspegi hori alderdi historikotik zein literariotik landuko dugu.

Oroimenaren harra lanketa Kattin Txiki taldeak hezkuntzarako proposatutako proiektu zabalago baten bigarren zatia da, hain zuzen ere, 4.DBHn ikasleei proposatu zaien proiektuaren jarraipena da: DBHko azken ikasturtean *Memoriaren mapa* proiektua egitea aurreikusten da, ikasleek herrian garai horretako gertaerekin zerikusia izan zuten leku eta pertsonaiak ezagutzea helburu duena. Esku artean dugun lanaren xede nagusia hausnarketa izango da.



Bukatzeko, esan liteke unitate unitate didaktiko honek ibilbide zirkularra egiten duela. *Ahantzura-oroimena* hitz bikotearekin ematen dio hasiera lanketari, ikasleak honen inguruan pentsatzen jar daitezten, eta bukaeran, berriz ere ideia berari heltzen zaio *Zauriak, itxi ala ireki* eztabaida proposamenarekin, hau da, gertatutakoaren gainean hitz egin beharko litzatekeen (oroimena) ala betirako isildu beharko genukeen (ahantzura) galdetzen zaie. Azken finean, ideia bera izango da ardatza hasieratik bukaeraraino.

ONARRIZKO ZEHAR KOMPETENTZIAK

- Hitzezko eta idatzizko komunikazio jariokor, autonomo, sortzaile eta eraginkorrak egitea.
- Ideiak sortzea eta hautatzea (pentsamendu sortzailea).
- Norberaren eta besteen nahiak asebate daitezten uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea, eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.
- Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak betetzea.
- Planifikatutako ekintzak gauzatzea, eta beharrezkoa baldin bada, haiek doitzea.
- Portaera soziala eta moralaren autoerregulazioa.

ONARRIZKO DIZIPLINA BARNEKO KOMPETENTZIAK

- Hainbat esparrutako hitzezko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak, analogikoak zein digitalak ulertzea eta jarrera kritikoz balioestea, xede pertsonalak, sozialak edo akademikoak erdiesteko.
- Esparru pertsonal, sozial edo akademikoaren berezko hitzezko eta idatzizko testuak eta ikus-entzunezko analogikoak eta digitalak sortzea, eraginkortasunez erantzuteko askotariko komunikazio-beharrizanei.
- Norberaren gizartea ezagutzea, eta bereziki haren iraganeko eta egungo eraketa, antolamendua eta funtzionamendua; gizartea zer lurraldetan eta nola ezarrita dagoen jakitea, haren iraganaren kontzientzia hartzea eta gizakien ekintzak gizartean sortzen dituen arazoaren aurrean modu positiboan jarduteko gaitasuna lantzea.
- Iraganeko, edo gaur egun, bizikidetzaren tentsioak eta gatazkak izan dituzten gizarte-taldeak, elkarri eragiten diotenak, historian zehar zer konfigurazio edo egitura izan duten jakitea; eta iraganaren gaineko kontzientzia kritikoa lantzea, etorkizunean egoera horiek konpontzeko prozedura baketsu eta demokratikoak erabiltzen jakin dezagun.



ETAPAKO HELBURUAK

- Bai ahoz eta bai idatziz modu txukun, koherente, zuzenean eta komunikazio-egoera eta helburua kontuan hartuta espresatzea eta eta interaktuatzea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta espiritu kritikoa hartzea oinarri, zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko.
- Literatura-lanak modu kritikoan interpretatzea eta aztertzea, eta horretan, lan horien balio artistikoa eratzten duten elementuak identifikatzea eta lan horiek kultura-tradizioarekin erlazionatzea, horren guztiaren bidez gizakiaren alderdi indibidual eta kolektiboaz jabetzeko eta norberaren kultura-identitatea eraikitzeko.
- Espainiako eta Euskal Herriko historiako gertakari, prozesu eta protagonistarik garrantzitsuenak identifikatu, aztertu eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea, bi errealitate historiko horien egungo konfigurazioan izan duten eraginaz jabetzeko.
- Euskal Herriko eta Espainiako historia garaikideko gertakari eta prozesu historikorik garrantzitsuenak ezagutzea eta gertakari politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko loturak identifikatzea, guztiak beren konplexutasun osoan ulertzeko.
- Euskal Herriko eta Espainiako egungo gizarteari eta iragan historikoari buruzko ikuspuntu propioak argudiatzea eta ikuspegi uniformistak eta lokalistak gainditzea, aniztasuna errespetatzeko eta demokrazian eta berdintasunean oinarritutako bizikidetzaz ahalbidetuko duten irtenbideak kolektiboki bilatzeko.

EDUKI MULTZOEN EZAUGARRIAK

- Ahozko nahiz idatzizko ulermenarekin lotutako trebetasun linguistikoak.
- Zenbait diskurtso-eremutan ahoz nahiz idatziz espresatzearekin lotutako prozedurak.
- Euskal literaturako liburu, pasarte eta egileak ahalik eta modu txukunean aukeratzea.
- Testuak irakurri eta aztertzeari ahalik eta denbora gehiena eskaintzea.
- Gaur egungo literatura-lanen garrantzia azpimarratzea, baina betiere, literatura-lan horiek iraganeko literatura-lanekin dituzten loturak inola ere ahaztu gabe.
- II. Errepublika eta Gerra Zibila nazioarteko krisi-testuinguru batean (1931-1939).
- Espainia Europatik kanpo: diktadura frankista (1939-1975).
- Trantsizioa eta demokrazia Euskal Herrian eta Espainian 1975. urteaz geroztik.



EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Ea badakien gaurkotasun handiko gaiekin lotutako ahozko aurkezpenak egiten, eta horretan, ea gai den, ikus-entzunezko baliabideak nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz, aldez aurretik prestatutako eskema bati jarraitzeko.
- Ea modu aktibo eta erreflexiboan parte hartzen duen ikaskuntza helburu duten ahozko interakzioetan, eta horretan, ea gai den azalpenak eta argudioak modu pertinente eta egokian emateko.
- Ea gai den, informazioa bilatzean, aukeratzean, komunikatzean eta zabaltzean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomo, eraginkor eta kritikoa erabiltzeko.
- Ea argudiatzen dituen egungo gizartean ditugun eta Euskal Herriko eta Espainiako iragan historikoari lotuta dauden gai garrantzitsuei buruz dituen ikuspuntu propioak.
- Ea gaur egungo auzi batzuei buruzko eztabaidetan parte hartzen duen eta haietan iritzi arrazoituak ematen dituen gizarte-zientzietan oinarrituta, eta besteen iritziak errespetatzen dituen.
- Ea identifikatzen dituen egungo gizartean dauden hainbat gatazka eta erronkaren sustrai historikoak, eta ea informazio orokor eta historiografikora jotzen duen.



SEKUENTZIA EREDUA

► 1.ZATIA: *Memoriaren atea zabalik*

	JARDUERA	AZALPENA	EBALUAZIO TRESNA
1.saioa	<ol style="list-style-type: none">1) Oroimena, oraina2) Ahanzturaren zingira3) Maravillas4) Golgota	4 jarduera hauek gaia girotzeko izango dira: Besteak beste <i>Berri Txarrak</i> taldearen abestia eta liburuaren lehen orrialdea konparatuko dituzte irakurketari ekin aurretik.	*
2.saioa	<ol style="list-style-type: none">1) Oroimenaren harra2) Isiltasuna nagusi3) Booktuberboom4) *Identitate galduaren bila <p>*Jarduera hau unitate didaktikoaren 2.zatia egingo bada bakarrik emango diegu ikasleei</p>	Etxean lehenengo 28 orrialdeak irakurriko dituzte, derrigorrezkoa izango da saio honetarako irakurrita ekartzea. 2. saioan gaia girotzen jarraituko dugu, liburuaren hasierako narratzailea eta bukaerako narratzailearen inguruko galderak egingo dizkiegu. Hori landu ondoren, egin beharreko proiektuaren inguruko azalpenak emango dizkiegu. Ereduak, jarraibideak,... izango dituzte jarduera hauetan.	Irakurtzeko proposatuko zaizkien liburuen inguruko Booktuber ikus-entzunezko proiektua

► 2.ZATIA: Zauriak, itxi ala ireki?

	JARDUERA	AZALPENA	EBALUAZIO TRESNA
1.saioa	<p>1) Florecica(s) del camino</p> <p>2) Eta euskal literaturan zer?</p>	<p>Emakumeek gatazka/gerra egoeretan jasandako errepresioaren inguruko lanketa da. Horretaz gain, Kasilda, Saturrarango kartzela,... ere ezagutuko dituzte elkarri kontatu beharreko testu/ bideo ezberdinen bidez.</p> <p>Gainera, 36ko Gerran emakumeen aurkako bortxakeria sistematikoaren inguruan informazioa jaso eta hausnartuko dute Aulki jokoa liburuko pasarte batzuen bidez.</p> <p>Euskal literaturan garai horri buruz hitz egiten duten obrek, garai ezberdinetan idatzitakoek, emakumea nola irudikatu izan duten aztertuko dute ariketa simple baten bidez.</p>	*
2.saioa	1) Zauriak, itxi ala ireki?	<i>Ur handitan</i> telebista saioan memoria historikoari eskainitako tartea ikusiko dute	*
3.saioa	1) Zauriak, itxi ala ireki?	<p>Aurreko saioan ikusitako saiotik zenbait zati aterako dira, eta horrekin lotutako zenbait hitz topatu beharko dituzte gurutzegraman batean.</p> <p>Jarraian, eztabaidatzeko gaia proposatuko zaie.</p>	Eztabaidan ikasleek egiten duten jarduna ebaluatzeko fitxa.

* Ikasleak ebaluatzeko 2 tresna proposatzen dira, baina irakasle talde bakoitzak erabakiko luke tresna gehiago txertatu nahi dituen ala daudenak aldatu nahi dituen.



TESTUINGURU HISTORIKOA

Testuingurua azaltzeko *Oroiteriara* jo dugu, ekimen ikaragarri interesgarria iruditu baitzaigu, bertan garai horretako gertakarien berri oso modu zehatz eta osatuan ematen dute.



Oroiteria memoria kolektibo gutxituez hitz egin nahi duen biltegia da, webgune bat da. Webgune hau ez dago bukatuta, 36ko gerraren memoria berrosatzeko lana da, horretan lanean ari da hamaika eragile eta denen topagune bihurtu nahiko luke. Azken finean, lan hauek plazaratzeko tresna da.

5 geltoki nagusitan dago banatuta Oroiteria: *36ko gure gerra*, *Zergatik*, *Datzan*, *Ganbaratik* eta *Ateratzeko zorian*.

Horiez gain, honako 4 lotura hauetan testuinguru historikoa ulertzen laguntzeko informazioa jasoko dugu.

- 1) **Konspirazioa**
- 2) **Estatu-kolpea**
- 3) **Gerra**
- 4) **Jazarpen makina**

1

MEMORIAREN ATEA ZABALIK

1 OROIMENA, ORAINA

► Azken hilabete hauetan *Maravillas* izena maiz entzun eta ikusi dugu. Hemen dituzue *Berria* egunkaritik eta *Argia* aldizkaritik jasotako zenbait albiste eta biñeta. Eman iezaiezue begirada bat, eta komentatu zuen artean honi buruz dakizuen.



- ▶ Berri Txarrak taldearen *Maravillas* abestiaren **bideokliparekin** hasiko dugu memoriaren bidea. Ikusi ezazue bitan; lehenik eta behin, erreparatu iezaiezue irudiei, eta jarraian, saia zaitetzte proposatutako galderei talde txikietan erantzuten.



- Zuen iritzi, zeri buruz hitz egiten du abestiak?
- Kantan nortzuk dira “deitu gabe datozenak”?
Maravillasen aitaren bila etorritako erreketek
- Zein izan daiteke bideoklipean agertzen den neskatila?
Maravillas Lamberto
- Zergatik agertzen dira hainbestetan “oroitu” eta “ahaztu” bezalako hitzak?
Unitate didaktiko honetan ikasleek gaiaren inguruan hausnartzea nahiko genuke. Horrelako gertaerak ahaztu egin behar dira ala horiek oroitzeari garrantzia eman behar zaio? Egin beharreko hausnarketa gai arantzatsu honen ingurukoa izango da.
- Zer gertatu zen Larragan (Nafarroa) 1936.urtean?
Nafarroan ez zen errepublikazaleen aldetik frontierik egon, errepresioa besterik ez. Horrek zuzenean eragin du duela urte gutxira arte bertako gertaerak isilpean gordetzean, eta traumak luzeago iraun du.
- Herrian horrelakorik gertatu zitzaion pertsonarik ezagutzen al duzue?
- 1936-1939 urteetan gertatutakoaren inguruko ezer kontatu al dizuete etxean?



3 MARAVILLAS

Ostikoz bota digute atea
zein dira deitu gabe datozenak?
Zer nahi dute aita, zuzenean zuri begira?
Zein dira oihuka mintzo direnak?
Norbaitek oroituko ditu etorkizunean
ahantzuraren zingira honetan gertatuak
Ikara; bortxaren bigarren izena
zein dira deitu gabe datozenak?
Gogoan dut orain aspaldiko aholkua:
ez fida herraren mirabe denaz
Norbaitek oroituko ditu etorkizunean
ahantzuraren zingira honetan ito dituztenak
abesti berriren batean
zuhaitz zaharren azaletan

Argaren zilar uretan
Iluntzeetan
Ostikoz bota digute atea
zein dira deitu gabe datozenak?
Agur ahizpak eta senitarteko guztiak
agur lagunak eta jolasten ginen tokia
adio ene Larraga maitea
Norbaitek oroituko ditu etorkizunean
ahantzuraren zingira honetan ito dituztenak
abesti berriren batean
zuhaitz zaharren azaletan
Erriberako izarretan
Nafarroan...

(Berri Txarrak, *Payola*, 2009)

MARAVILLAS LAMBERTO YOLDI (1922/6/28-1936/8/15)

Espainiako Gerra Zibilean erail zuten Larragan (Nafarroan), bere jaioterrian. Aita, Vicente Lamberto, herriko militante sozialista zuen. Guardia Zibila haren bila etxean azaldu zenean, Maravillas alabak harekin joan nahi izan zuen. Udaletxean bahiturik, Maravillas behin eta berriz bortxatu ondoren, hil egin zuten, aitarekin batera. Haren gorpua biluzik txakurrei eman zieten eta gorpuzkinak erre egin zituzten.

2017ko abenduaren 2an, Iruñeko Alde Zaharreko gaztetxea irekitzeko ekitaldi ofizialean, jakitera eman zen gune honen izen berria Maravillas izango zela, Maravillas Lambertoren omenez. Ekitaldiak Maravillasen ahizpa Josefinaren parte hartzea izan zuen. Josefinak izen ematea eskertu zuen, ulertuta memoria historikoa beharrezko tresna dela iraganeko krimenak ez ahazteko.

2018ko otsailaren 10ean, Iruñeko Lezkairu auzoko plazari Maravillas Lamberto Plaza izena jarri zioten.



Informazio gehiago: **Nabarralde Berria**

Iturria: **Wikipedia** (moldatua)

► GOLGOTA

2008an Xabier Montoia idazleak *Golgota* liburua idatzi zuen. Maravillas Lambertoren ahizparen, Josefinaren, bizitzan oinarritzen da lan hau. Irakurri itzazue etxean, lasai, liburuaren lehenengo 28 orrialdeak.

Irakurketari ekin aurretik, hona hemen nobelaren hasierako pasarte bat. Irakurri eta azpimarratu pasartea ulertzeko gako-hitzak. Ondoren, bete ezazu taula *Berri Txarrak* musika taldeak sortutako *Maravillas* letra (2009) eta *Golgota* (2008) eleberriko pasartea baliatuz.

	"MARAVILLAS"	"GOLGOTA"
Nork kontatzen du istorioa?	<i>Maravillasek berak.</i>	<i>Narratzaile orojakileak.</i>
Objektiboki kontatzen du gertatutakoa? Zerk pentsarazi dizu hori?	<i>Maravillas da kontalaria, eta batzuetan aitari ere zuzentzen zaio, gertatzen ari dena ulertzen ez duen seinale. Egoeraren bortizkeria haren beldurraren eta harriduraren bidez transmititzen da. Are gehiago, hari gertatutakoa norbaitek gogoratuko duela dio, abestiren batean; hain zuzen ere, Berri Txarrak taldeak egin bezala.</i>	<i>Objektiboki ari da, baina Felisaren eta Maravillasen familian fokalizatzen du eta horrek kontatzen duena gertuagotik sentitzea dakar. Esaldiak oso laburrak dira, gertaerari errimo bizia emateko, eta erabiltzen diren hitzek (intziria, garrasika, gorputz mindua, etab.) gogortasuna transmititzen dute. Horrez gain, iruditeri kolektiboan oso sinbolikoak diren beste elementu batzuk aipatzen dira (fusila, bibote meheduna, larruzko bota luze eta distiratsuak, etab.) botereari eta indarkeriari lotuak.</i>
Noren hitzek eragin dizute gehiago? Zergatik?	<p><i>Normalean abesti bat entzuteak (letrak ez ezik musika dutenez) gehiago eragiten du, bi adierazpen artistiko batzen direlako eta melodiak berak (tonuak, isiluneak, akordeak, erritmoak, etab.) testuaren interpretazio bat ematen duelako.</i></p> <p><i>Halere, eleberriko pasarteak ere erritmo bizia du, nahiko objektiboki ari da, eta hautatutako hitzek erakusten duten bortizkeriak irakurlearengan eragiteko aukerak sortzen ditu.</i></p>	



“Euria ari zuen, ongi gogoan du Felisak. Afaltzen hastekotan zeuden. Euriaren hotsak isilduko zuen autoena. Atean jo zuten. Gogor, behin eta berriz. Fusilaren ipurdiaz jo, berehala zabaltzen ez bazieten atea bota eginen zutela mehatxuka. Zatitzen ari zen ogia eta labana mahai gainean utzi eta lasai egoteko eskatu zien aitak, irekitzera joan aurretik. Amak eskuan zeukan burrunztalia baztertu eta alabak bildu zituen bere inguruan. Oldarrean sartu ziren, garrasika. Zerbait esaten saiatu zen aita. Ezin. Saihetsetan hartu zuen lehen kolpea. Lurrera erori zen. Hots sor bat entzun zen, hezur hautsi baten antzekoa. Lurrean zetzanaren emazte eta alaben ahoetatik intziri bat irten zen. Alabek aitarengana egin nahi izan zuten. Amak eragotzi zien. Bere kontra estutu zituen. Aise eutsi ahal izan zien alaba gazteenei. Zaharrenari ez. Amaren eskutik askatu, fusildunei familia bakean uzteko arrenka eskatzen zien aitarenganaino heldu, hari atxiki, eta gizon armatuen eta aitaren gorputz minduaren artean berea jarri nahi izan zuen. Horma bat izanzen zen alabarik zaharrena, aita babestuko zuen horma sendoa. Ostikoka erauzten saiatu ziren jadanik odoletan zegoen aitarengandik. Behin eta berriz ostikatu zuten, harik eta talde-buru bibote meheduna nekatu eta bere gizonei lehenbailehen bereiz zitzatela agindu zien arte. Talde burua baino urte gutxi batzuk gazteagoak ziren haren gizonak, eta Gorriaren alaba zaharrena baino zaharxeagoak. Beso banatatik hartu eta aise altxatu zuten. Isilarazten ahalegindu ziren. Neskak hozka egin zion bati eskuan. Puta halakoa. Zaplazteko bakar bat aski, neska sukaldeko zokoraino bidaltzeko. Alaba jipoituari hurbiltzera egin zuen amak. Erreguak berritu zituen aitak. Eraman hemendik behingoan, erabaki zuen talde-buruak. Lehentxeago alaba altxatu zuten beso berberrek jaso zuten aita ere. Horretan ari zirelarik, ez zuten ikusi nola menderatua uste zuten neskak ahal bezala zutitu eta aitaren gerria besoez inguratu zuen. Ze kristo zabilzate, haserretu zitzaien talde-burua. Jauna, mesedez, eskatu zion Gorriak inoiz baino ozenago eta etsituago. Mesedez! Beste muturreko bat jo zion talde-buruak. Nazka eginda naukazue, jarraitu zuen larruzko bota luze eta distiratsuak jantzitakoak. Aitarengandik bereizi nahi ez badu, hor konpon. Eraman biak”.

(*Golgota*, 9-10)

- Zein sentimendu piztu zaizkizue familiak Iruñeara joan bitarteko aldian jasan behar izan zuena irakurri duzueanean? Jarri launaka eta hitz egin irakurritakoaren inguruan.

- ▶ **Liburuaren ondorengo orrietan oroimenaren inguruko hausnarketak agertzen dira, hain zuzen ere, 1936ko gertaerek eragindakoak.**

“Alaben loa lasaia zela uste zuen amak. Oker zegoen. Oroimenaren harra hirurengan zegoen ongi finkaturik, bizitza zeharo aldatu zien gauaz gero. Zainetan zebilkien eta errukirik gabe oldartzen zitzairen, begiak itxi orduko.”

(*Golgota*, 30-31)

- Zer eman nahi digu aditzera honekin protagonistak?

Ezin izan zioten inoiz ihes egin bizi izan zutenari, betirako izan zuten iltzatuta egun horretan eta ondorengoetan gertatutakoa.

- Zer pentsaturik eman al dizue?

- ▶ **Segidan, irakasleak, taldeka, zenbait hitz banatuko dizkizue. Hauek behin eta berriz irakur daitezke liburuan zehar, zer transmititzen dizuete? Zein harreman izan dezakete progratonistarekin edo gertatuakoarekin?**


- HERIOTZAREKIN AMETS EGITEA (201)
- ZORABIOA (194)
- NEKEZA (203)
- BEGIRADAK AZALA ERRE (194)
- JASANEZINA (198)
- AMORRATU (194)
- KONORTEA GALDU (198)
- SORTERRI AIPAEZINA (198)
- AMORRAGARRIA (199)
- HOTZIKARA (199)
- ONDOEZA (199)
- AMORRUA ZAINETAN BORBORKA (201)
- ELDARNIOA (201)
- BARRENAK ERRETZEN ZIZKION HERRA (201)
- BELDURGARRIA (201)
- INBIDIA (201)
- BUKAERA TXARREKO FILM KAXKAR ETA LUZEEGIA (201)
- BETIEREKO ATSEDENA (201)

Zerrenda amaigabea da, liburua osoan zehar tankera bereko hamarnaka sentimendu topa ditzakegu:

Milioika infernu koxkor (202), oroimena (194), damua (194), haserre egon (201), latza (201), zama astunegia (194), gogorkeria (194), gogorra (198), ahanzturaren ozeanoa (199), oroimenaren salda kiskalgarria (203), mingarria (202), aztoragarria (202), eramangaitza (202), ahaztu nahi eta ahaztu ezin zuen sorterrria (203), zartako ederra (203), nazkaraino ausart eta sutsu (203),...



HERIOTZAREKIN AMETS EGITEA	ZORABIOA
NEKEZA	BEGIRADAK AZALA ERRE
JASANEZINA	AMORRATU
KONORTEA GALDU	SORTERRI AIPAEZINA
AMORRAGARRIA	HOTZIKARA
ONDOEZA	AMORRUA ZAINETAN BORBORKA
ELDARNIOA	BARRENAK ERRETZEN ZIZKION HERRA
BELDURGARRIA	INBIDIA
BUKAERA TXARREKO FILM KAXKAR ETA LUZEEGIA	BETIEREKO ATSEDENA

- 
- ▶ Behean duzuen pasartea *Golgota* eleberriaren amaierakoa da, gertatutakoaren inguruan egindako hausnarketa. Irakurri ezazu eta konparatu aurreko ariketako hasierako pasartearekin: zertan dira ezberdin?

“Oroimena oraina da. Hori dela-eta, **nire mundualdia lehen aldian kontatua gaizki kontatu dudala konturatu berri naiz**. Orain, beti bezala, beranduegi denean zereginik ez dagoenean. Gau guztiak hauxe, eta egun guztiak **1936ko abuztuko gau baten barneko egunak izan direla esan dezaket okerrik gabe**. Beste mende batekoa naiz, bistan da, iraganaren hondakin bat. (...) **Ia bizitza osoa behar izan dut Felisa berriz izateko**, besteek edo nik neure buruari ezarritako mozorroak erantzeko, urtetan hain estu lotu nauten soka eta lokarrietatik askatzeko. Bakarrik naiz. Falangekoek hil eta zakurrei bota zituzten hartan Esperanza eta aita ziren bezain bakarrik”.

(*Golgota*, 228)

- Nor da narratzailea pasarte honetan?

Felisa

- Zergatik ageri da narratzaile hau?

Ahotsa hartu du, istorioko pertsonaia nagusia narratzaile protagonista bihurtu da. 3. pertsonako narratzaile orojakiletik 1.pertsonako narratzaile protagonistarako aldaketa egon da liburuan.

- Zer adierazten du narratzaile aldaketak?

Pasartearen hasieran esaten du “oroimena oraina” dela, eta orduan konturatzen da ezin dela lehenaldiko gertaera bat itxiztat jo, orainaldian eragingo ez balu bezala. Gogoeta horretatik abiatuta, bizitza osoan zehar saiatu da “Gorriaren alaba” etiketari ihes egiten, baina bera hori ere badela jabetu da. Gertatutakoa kontatu egin nahi du, kontatzeak ekarri baitio iraganeko guztiaz jabetzea. Narratzailea aldatzea beharrezkoa du bere nortasuna eraiki duela adierazteko. Ahotsa hartu du, eta ahaldundu egin da. Bere istorioaz jabetu da.

- Nor(tzuk) d(ir)a biktima(k) kontakizun honetan?

Esperanza eta aitaz gain, protagonista, ama eta bere beste ahizpa ere biktima dira. Bizi izan duen trauma hori idatziz gainditu du liburu honetako protagonistak.



6


ISILTASUNA NAGUSI

- ▶ Ikusi duzuen moduan, liburu honetan sentimenduak bor-borka agertzen zaizkigu. Josefina Lambertok garai horretan bizi izan zuen bortizkeria oso modu gordinean eta bizian transmititzea lortu du Xabier Montoia idazleak.


Horrelako ehundaka gertaera izan ziren garai horretan, baina beharbada Maravillas Lambertorena da hemen inguruan ezagutzera eman direnen artean ikonikoa. Zoritxarrez, ez dugu beste hainbaten berri izan isiltasuna izan zelako nagusi gertatu zenaren gainean. Isiltasun hori euskal literaturan ere islatu zen, eta urteak igaro ziren hainbat idazlek garai horri buruz idatzi zuten arte.

Hiruhileko honetako irakurgai proposamenak garai horrekin loturikoak izango dira. Guztietan egingo zaizkio erreferentziak 36ko Gerrari eta ondorengo urteei, modu ezberdinean, baina guztietan izango da hizpide.


HAUEXEK DIRA PROPOSAMENAK:



Golgota
Xabier Montoia




Aulki-jokoa
Uxue Alberdi




Txartel bat (des)herrira
Garazi Goia



Hobe isilik
Garbiñe Ubeda



Antzararen bidea
Jokin Muñoz



Kolosala izango da
Joseba Sarrionandia

- ▶ Iritsi zaigu gure azken lanari ekiteko unea. Booktuberrak izango zarete oraingo honetan. Inoiz egin al duzue horrelakorik? Bada, erantzuna ezezkoa bada, hementxe dituzue zenbait jarraibide. *Galtzagorri* elkarteak urtero antolatzen du *Booktuberboom* izeneko lehiaketa, eta haien web-orrialdean sartuz gero, bertan topatuko dituzue proiektu honetarako beharrezko izango dituzuen hainbat tresna: booktuber fenomenoaren zertan den, adibideak eta egiteko pausuak. Hortaz, aukeratu ezazue liburu bat, eta has zaitezte lanean.



- Booktuber fenomenoaren
- Nola egin
- Adibidea



IDENTITATE GALDUAREN BILA

Booktuberboom jarduera egiteko liburu bana irakurriko duzue, eta eskatuko dizuegu aukeratzen duzuen liburua aukeratzen duzuela, taula bat betetzeko. Zertarako? Hemendik gutxira egingo dugun *Eta euskal literaturan zer?* jarduerarako prest edukitzeko.

EMAKUMEZKO PERTSONAIAK (Familia barruko rola, kontzientzia politiko-ideologikoak, bikotekidearekiko harremana, gerran parte hartzea,...)	GIZONEZKO PERTSONAIAK (Familia barruko rola, kontzientzia politiko-ideologikoak, bikotekidearekiko harremana, gerran parte hartzea,...)

Bigarren zatiari heldu aurretik zenbait azalpen ematea gustatuko litzaiyuke. Batetik, jardueren nondik norakoak argituko ditugu; eta, bestetik, jarduera hauek sortzeko Amaia Serrano Mariezkurrenaren artikulu desberdinetan oinarritu garenez, bere lanari erreferentzia batzuk egingo dizkiogu ariketa hauen zergatiak ezagutzeko, eta informazioa emango dugu ariketen muinera iristeko.

Lehenik eta behin, bi jarduera azalduko ditugu, zailtasun handiena izan dezaketenak, hain zuzen ere. *Florelica(s) del camino* jardueran gaiari modu progresiboan heldu diogu. Hasiera batean, ideia trukea egingo dute euskarri desberdinetatik jasoko duten informazioarekin, eta, jarraian, emakumeek jasan zuten jazarpenari buruz jardungo gara. Hasiera batean kazetaritzaren ikuspegitik landu dugu emakumeek jasan behar izan zuten bortizkeria **Noticias de Navarrako** artikuluaren bidez; gero, kritika kulturalaren ikuspegiarekin osatu dugu gertatutakoa; eta, bukatzeko, literaturan, Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* (2009) liburuaren bidez, gaia nola lantzen den aztertu dugu. *Eta euskal literaturan zer?* jardueran taula bat izango dugu. Ikasleen lana izango da taula horretan agertzen diren nobela motak, liburuak eta liburuetan agertzen diren pertsonaiak zenbait ezaugarriekin lotzea. Ariketa sinplea da, baina uste dugu irakasleontzat lagungarria izan daitekeela informazio apur bat eskura izatea.

Beraz, bigarrenik, jarduera hauetan beharrezko izango dituzuen azalpento batzuk emango dizkizuegu.

Amaia Serrano Mariezkurrenak "Construcción de género en la novela vasca sobre la Guerra Civil (1937-2011)" artikuluan (2017) 36ko Gerrari buruzko eleberriak eta horietan ageri diren emakumezko pertsonaien irudikapenak multzokatu ditu. 36ko Gerrari buruz literarioki idaztea ez da erraza izan, errepresioaz gain (poliziala, kulturala, ...) zentsura handia zegoen, eta ez zen erraza izan literaturan gerrari buruz hitz egitea. 1937an argitaratu zen EAJren Eguna aldizkarian gerrari buruzko lehen narrazioa (Txomin Arrutiren Loretxo), eta, hortik aurrera, poliki-poliki joan dira idazleak gerrari buruz idazten. 80ko hamarkadatik aurrera, idazle kanoniko askok idatzi zuten gerraz. 90eko hamarkadan biderkatu egin ziren nobela horiek, eta 2000. urtetik aurrera gerrak nobelarako hizpide izaten jarraitzen du. Mende hasieran bereziki ugaritu ziren eleberriak, eta 2007. urtearen inguruan topatzen dira sorkuntza lanik gehienak (Memoria Historikoaren legea sortu zen urtean). Serrano Mariezkurrenak (2017) arrazoi hauek ematen ditu 2011. urte artekoak aipatzeko: ETAk borroka armatua orduan utzi zuen. 2011tik aurrerako eleberrietan gerrari buruzko diskurtsoa aldatu egiten da, zenbaitetan samurtu egiten da kontatzeko modua, bestetan gaia zabaldu egiten da eta gerrako hauren kasuaz hitz egiten da. Eleberri batzuetan mitoak deseraikitzeke joerak jarraitzen du, baina bada ezberdintasunik, izan ere, tarteka iraganeko eta orainaldiko planoak ez dira gatazka politikoetan kokatzen (36ko Gerra eta euskal gatazka), ezpada pertsonaiaren gatazka pertsonaletan (eta horietako bat 36ko Gerra noski).

Guk, gure irakurketa proposamenean, 2011 urteaz geroztik argitaratutako bi lan ere aukeratu ditugu: Garbiñe Ubedaren *Hobe isilik* eta Garazi Goiaren *Txartel bat (des)herrira*.

Bestalde, ohartuko zarete 60ko eta 70eko hamarkadetan hutsune bat dagoela taulan, hau da, ohitura eleberrietik eleberri esperimentalera pasatzen dela zuzenean. Ez genuke aipatu gabe utzi nahi urte horietan Antonio Zavalak sortutako Auspoa saila. Hamarkada horretan Zavalak sortutako sailaren lehen autobiografiak argitaratu ziren, eta ondorengo



hamarkadetan zehar plazaratzen jarraitu zuten. Estetikoki gainerako eleberrietatik asko urruntzen direlako utzi ditu Serrano Mariezkurrenak (2017) taula honetatik kanpo, baina aipamena merezi dutela iruditzen zaigu. Autobiografia fikzionatua egin zuten horietako batzuk eta bereziena Sebastian Salaberriarena izan zen (*Neronek tirako nizkin*, 1964), zeinetan gerrarako errekrutatutako pertsonaiak frankisten bandotik kontaktzen dituen gertaerak, anaia kontrako bandoan dagoela jakitun (horri zor zaio izenburua, agian anaia tirokatu duena bera izan dela esaten baitu).

- ▶ Historian zehar gatazketan eta gerretan bereziki emakumeak izaten dira jomuga. Gatazketan sufrimendu handia jasan behar izan dute, eta gaur egun ere horrela izaten jarraitzen du. Batzuek sistematikoki sufritzen dute jazarpen hori beren ideiak direla medio, eta beste batzuek norbaiten alabak, arrebak, emazteak, amak,... izateagatik bakarrik eraman behar izaten dute zigorra bizkar gainean bizitza osoan zehar.

Hasteko, irakur ezazue Jesus Nieto Garciak **Noticias de Navarra** egunkarian argitaratutako artikulutik atera dugun zatitxo, ea zer iruditzen zaizuen.

Maravillas de Larraga, florecica del camino

POR JESÚS NIETO GARCÍA - Viernes, 16 de Febrero de 2018 - Noticias de Navarra

(...) El 21 de abril próximo va a celebrarse en Larraga, su pueblo natal, un homenaje a todas las mujeres republicanas represaliadas, a su sufrimiento, y no sólo como hijas, hermanas, esposas y madres sobrevivientes, sino por haber sido objetivo prioritario de un genocidio planificado y sistemático que las mancilló, las rapó y las sacó a pasear por sus pueblos ensuciadas hasta los pies en sus propias heces después de obligarlas a tomar aceite de ricino, las difamó, se mofó de ellas, las torturó, las violó y a callar, en aquellos tiempos en que la culpa de su desgracia recaía en ellas mismas, las mujeres *rojas* (...)

Iturria: **Noticias de Navarra** (moldatua)

- ▶ Jarraian, taldeak osatu, eta saiatu ondorengo galderak erantzuten.

- Zuen herrian horrelakorik gertatu al zitzaizen emakumeei? Ezagutzen al duzue egoera honetatik pasa zen emakumerik?
- Zein izan zen emakumeek 36ko gerran izan zuten egitekoa? Nola irudikatzen dituzue emakume horiek?
- Nor izan zen Kasilda Hernaez Vargas?
- Zer dakizue Saturrarango espetxeari edo Alava sareari buruz?



Toledoko zenbait emakume ilea soilduta errepublikarren senide izateagatik.

Iturria: Fundación Pablo Iglesias



- ▶ Lau taldetan banatuko zarete. Talde bakoitzak zeregin desberdina izango du: lehenengo taldeak **Kaxildari** buruzko artikulu bat jasoko du; bigarrenak, **Izarren argia** pelikulari buruzko trailerra ikusiko du; hirugarrenak, **Debekatuta dago oroitzea** dokumentalaren trailerra; eta, azkenik, laugarren taldeak **Alava sarea** dokumentalari buruzko aurrerapen bideoa. Talde bakoitzak bere lanketa egin dezala, eta behin hori egin duzuean, partekatu jaso berri duzuen informazioa.
- ▶ Jesus Nieto Garcíaen *Maravillas de Larraga, florecica del camino* artikuluari jarraiki, ezinbestekoa eta garrantzitsua da 36ko Gerran emakumeek jasandako bortxakeria sistematikoaz hitz egitea. Artikuluak dioen moduan, ilea soiltzeaz gain, publikoki makurraraziak izan baitziren, errizino olioia edanda kaka gainean egin eta plazan erakusten zituzten, herritarren lotsagarri. Ilea soiltzen zuena, batzuetan, laguna edota alderdikidea zen, bientzat mina are handiagoa izan zedin. Horrela kontatzen du Maud Jolyk *Las violencias sexuales de la Guerra Civil española* artikuluan:

“(…) si rapar los cabellos de las mujeres representa un acto de ruptura que atraviesa distintos siglos, su empleo en el centro de una guerra civil del siglo XX constituye una traducción inédita. Los rapados fueron llevados a cabo durante toda la guerra (y se prolongaron bajo la dictadura franquista), y afectaron a miles de mujeres (...) Los rapados y las purgas de mujeres apuntan a la reapropiación de lugares simbólicos, y a la sumisión visible de los cuerpos de la enemiga. Dos tipos de reconquista que se consumaron por medio de una violencia total, degradante, ritualizada y pública. (...) ilustra la voluntad de manifestar la recuperación de mujeres destinadas a plegarse a las nuevas normas de comportamiento dictadas por el proyecto “nacionalista”. Estas violencias participaban en la redefinición de las fronteras entre desviación y norma, entre masculino y femenino, entre exclusión e integración, entre dominado y dominante en el seno de la sociedad en guerra”

Iturria: Joly (2008: 100, 102, 103)

- Zuetako batzuek *Booktuberboom* jarduerarako Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* liburua irakurri duzue, horrelako gertakariren bat islatzen duen pasarterik identifikatu al duzue?

- ▶ Teresa protagonistak ilea soildu zioteneko momentua kontatzen digu liburuko pasarte batean, taldeka jarrita, eta lehen gaiaren inguruan jaso dugun informazioarekin, saia zaitetze ondorengo galderen inguruan hausnarketa egiten taldeka:

“Burua makurrarazi zidaten. Ileak kilimak egiten zizkidan oinetan, jarrera hartan lurreraino iristen baitzitzaidan adats luzea. Brotxa txikia hartuta, aparra ematen hasi zitzaidan Martiñaren aita, garondotik gora. Nahiago izango nukeen, mila aldiz nahiago, harrika hartu banindute, ostiko zjo eta garrasika iraindu banindute; baina minik gabeko oinaze hura barrua jaten ari zitzaidan. Gauza asko endredatzen dira emakume baten ilean. Bekokitik gerrira, gauza asko. Duintasuna, alaitasuna, ausardia, errebelia, emetasuna Ile kizkur luzean kiribilduta neuzkan denak, eta erauzi egin nahi zizkidaten, banaka, herriko plazan aulki berde batean eserita”.

(*Aulki-jokoa*, 104)

“Begiak gogor itxita egon nintzen denbora guztian. Bortxaketa batean horixe baita gogorrena: bortxatzailea gozatzen ikustea. Eta Martiñaren aita bortxatzailearen tresna baino ez zen; bortxatzailearen eskua, zerbait larriagoa ez esateagatik. Hori ere bazekiten, eta abre los ojos! agintzen zidaten. Irekitzen banituen ile-xerloak ikusten nituen neure oin biluzien gainera erortzen”.

(*Aulki-jokoa*, 105)

- Nolako hizkerarekin deskribatzen du gertaeren bortizkeria Teresak lehenengo pasartearen?
Hizkera zuzena eta gardena
- Zein hausnarketa egiten du gertaeren inguruan bigarren pasartearen?
Ilea soiltzeak eragiten diona azaltzen du, feminitatearen eta emakumetasunaren ezabatzea ekartzen dio.
- Zerekin parekatzen du ilea moztea?
Ilea moztea emakumea mutilatzea da, bortxatzea.



Aulki-jokoa liburuaren azala. Lehenengo aldiz agertu ziren emakumeak 36ko Gerraren inguruko liburu baten azalean

Egilea: Juanma Aramendi



KAXILDA

Soledad Hernaez Vargas (1914/4/9- 1992/8/31). Kasilda, Kaxilda, Kasi edo miliziana bezala ezaguna, militante anarkista ospetsua izan zen.

Kaxilda Hernaez Zizurkilgo Fraisoro haur-etxean jaio zen, ama ezkongabea zuen eta aita ezezaguna. Osabak anarkistak ziren, eta eragina izan zuten mugimendu libertarioan sartzeko hastepenean. Donostiako Egia auzoan hazi eta hezi zen, hain zuzen ere, Atotxako eskola publikoan ikasi zuen.

1931tik aurrera Gazte libertarioetan hasi zen militatzen, eta bigarren etxe izan zituen ateneo libertarioak.

Emakumez osatuta zegoen lantegi batean greba deialdia egiteagatik atxilotu zuten lehenengo aldiz. Bigarren aldia, berriz, 1934ko urriko greba iraultzailean modu oso aktiboan parte hartzeagatik izan zen, gerra tribunal batek 9 urteko espetxe zigorrera kondenatu zuen propaganda banatzeagatik eta 20 urte gehiagora leherkariak edukitzeagatik. Guadalupeko gotorlekuan espetxeratu zuten, eta, ondoren, Madrilgo Las Ventas espetxera eraman zuten. 2 urtez preso egon ondoren, 1936. urtearen hasieran Fronte Popularrak emandako amnistia orokorraren ondorioz geratu zen aske.

Espetxetik atera eta denbora gutxira, Felix Likiano militante anarkista ezagutu zuen, bizitza osoan bidaide izan zuen laguna.

Gerra Zibila hasi ondoren, milizia antifrankistan sartu zen: Donostiako defentsan, Irungo batailan eta Ebro eta Aragoiko frontean Hilario-Zamora zutabearen jardun zen borrokan. Bartzelonan zegoela, frankisten bandoak irabazi ostean, Pirinioetan barrena Frantziara egin zuen ihes Likianorekin batera, eta Argelés eta Gurs-eko kontzentrazio-eremuetan ibili ziren 1940. urtea bitarte. Behin aske geratu zirenean, Bordelera joan ziren. Beren etxebizitza frankismoaren eta nazismoaren aurkako erresistentzia gunea izan zen.

1992ko abuztuaren 31n hil zen, minbiziak jota, Donibane Lohitzunen. Miarritzeko hilerrian dago lurperatuta Felix Likianorekin batera.

Bere hilobian honako hau dago idatzita: *“Andra! Zu zera bukatzen ez den sua!”*



Iturria: [Wikipedia](#) (itzulia eta moldatua)

- ▶ Jarduera honekin hasi baino lehen, *Gure oroitzapenak* pelikulako film labur bat ikusiko duzue, hain zuzen ere, Josu Martinezek egindako *Ama* lana, *Soldadu hilaren ama* poeman oinarritutakoa. Istorio honek Lehen Mundu Gerrarekin du lotura, baina berdin-berdin izan zezakeen 36koarekin, azken finean gerra baitute oinarri. Zer iruditu zaizue Joseba Sarrionandiaren obran oinarritutako istorio hau? Bada, ikusitakoak orain landuko dugunarekin du harremana.

(Pelikula lortzeko aukera ez baduzue, poema bera jar dezakezue)

SOLDADU HILAREN AMA

Goizean jaso du gutuna
Michel Iriart soldadua
Semeak kasernatik izkiriaria,
Eta ireki orduko
Auzokoei erakutsi die.

Gero, sukaldera sartu
Eta irakurri du:
„Gerla maniobratan ari gara
gure etsaiena ere
geuk egiten dugu
eta, badirudi,
ez dugula eguberriotan
etxera joaterik ukanen,
bidaliezadazuz gaztainak,
mosuak, Michel”.

Amak orain
Gutuneko beste paper zatia ireki, eta,
Letra ezagutu gabe,
Soegin du:
„Gutun hori eman zidan bart Michelek,
goizaldean hil da,
lagun paregabea zen gu guztiontzat,
doluminak, Jean Larrieu”.

Ama, malkoak xukatu,
Bigarren papera amantalpean gorde,
Eta kalera doa semearen gutuna auzokoei
irakurtzera
... eta gaztainak eroatera.

Joseba Sarrionandia
Iturria: *Gure oroitzapenak* (2018)

Batxilergoko azken mailan zaudete, eta jada baduzue euskal literaturan idatzi diren lanen ikuspegi orokorra, baina inoiz jarri al zarete pentsatzen gure literaturan nola irudikatu izan diren ezagutu ditugun garai horretako emakumeak? 36ko Gerrari buruz idatzi izan diren liburuetan beti modu berean idatzi izan al da emakumei buruz?

Hona hemen zenbait obra eta bertan agertzen diren emakume protagonistak, zuen lana izango da protagonista bakoitza idazleak nola irudikatzen duen asmatzea. Horretarako elkartu egin beharko dituzue pertsonaiak eta hauei buruzko informazioa.

Amaia Serrano Mariezkurrenak “Construcción de género en la novela vasca sobre la Guerra Civil (1937-2011)” artikuluan (2017) taulan ikus daitekeen moduan multzokatu ditu 36ko Gerrari buruzko eleberririk eta horietan ageri diren emakumezko pertsonaien irudikapenak. Eleberririk batzuetan ez dago 36ko Gerran kokaturiko emakumezko pertsonaiarik, gerrako gertaera guztiak gizonen munduaren baitan gertatzen dira, eta emakumezkoen absentsia oso esanguratsua da: fikzioan ere garai horretatik kanpo geratzen dira, gerra gizonen soilik egin izan balute bezala, emakumezkoek gerra sufritu ez balute bezala, eta gerra egiteko modu bakarra balego bezala.



	ELEBERRI MOTA	LIBURUA	PERTSONAIK
1	OHITURA ELEBERRIA (1937-1957)	- <i>Loretxo</i> (Txomin Arruti, 1937) - <i>Ekaitzpean</i> (Joseba Eizagirre, 1948) - <i>Laztantxu eta Betargi</i> (Seber Altube, 1957)	Loretxo Malen Laztantxu
2	ELEBERRI ESPERIMENTALA (1979-1989)	- <i>Abuztuaren 15eko bazkalondoa</i> (Joxe Austin Arrieta, 1979) - <i>Poliedroaren hostoak</i> (Joan Mari Irigoien, 1982) - <i>Euzkadi merezi zuten</i> (Koldo Izagirre, 1984)	* Yosune-ama Pia Emakume anarkistak
3	ELEBERRI ERREALISTA (1989-1999)	- <i>Izua hemen</i> (Joxe Mari Iturralde, 1989) - <i>Badena dena da</i> (Patxi Zabaleta, 1995) - <i>Gerezi denbora</i> (Inazio Mujika Iraola, 1999)	** Hize Oxo Karmen
4	MEMORIAREN ELEBERRIAK (2000-2011)	- <i>Soinujolearen semea</i> (Bernardo Atxaga, 2003) - <i>Antzararen bidea</i> (Jokin Muñoz, 2007) - <i>Golgota</i> (Xabier Montoia, 2008) - <i>Aulki jokoa</i> (Uxue Alberdi, 2009)	***Carmen Paula-Candi Felisa Teresa-Eulalia

	EMAKUME-IRUDIKAPENEN EZAUGARRIAK
A	- Gerran aktiboki parte hartu - Antifrankista gisa definitu, baina ideologia politikoa zehaztu gabe - Narratzailearen bidez diskurtsoaren jabetzea (autokontzientzia erlijioso eta politikoa). Lehen aldiz hasi ahots narratiboa izaten eta haien lekukotzak lehen pertsonan kontatzen
B	- Beti gerrara joan direnen esperoan - Familiaren eta kolektiboaren zaintza - Gizonezkoen edo bikotekidearen ideologiarantz lerratu - Ez dute ahotsik
C	- Ez daude gizonen esperoan - Eremu pribatutik ateratzen hasi - Subjektu politiko berriak, emakume aktibistaren irudikapena: galiziarrek (anarkistak)
D	- Gerran parte hartutako lehen emakumeak agertu - Eremu pribatutik kanpo agertu, baina gehienetan bigarren mailako pertsonaia gisa - Subjektu politikoak, EAJri lotuak (Emakume Abertzale Batzakoak), edo, bestela, anarkistak

1	<u> B </u>	2	<u> C </u>	3	<u> D </u>	4	<u> A </u>
---	------------------------------	---	------------------------------	---	------------------------------	---	------------------------------

Iturria: Serrano Mariezkurrena (2017)

* Ez da emakumezko pertsonaiarik ageri gerran. Halere, 60ko hamarkadako planoan ageri diren bi emakumek irudikatzen dute gerrak utzitako nazio-aztiaren gatazka: Yosunek eta bere amak. Lehenengoak talka egiten du bere gurasoen mundu euskaldun-tradizional horrekin, eta kanpotar batekin ezkontzen da. Ama, berriz, bi mundu hauen arteko bitartekaria izango da ezkontza egunean.

** Ez da emakumezko pertsonaiarik ageri gerran. Istorio honetako protagonistak familia abandonatu behar du EAJk eskatutakoa betetzeko (Errusiara bidalitako haurrak artatzera joateko), eta, beraz, emakumezkoak ez da ia ageri, ezpada bere emazte abandonatua.

***Frankista baten emaztea da, eta hura politikan dagoen bitartean, bera jostundegiko lanaz arduratzen da (garai hartan ohikoa izan arren, Peneloperen mitoa gogorarazten du, gizona noiz etorriko zain dagoen emakumezkoarena).

► 36ko gerran protagonista izan ziren emakume desberdinak ezagutu ditugu aurreko jardueretan: Kaxilda, Maravillas, Saturrarango emakumeak, Alava sarea...

- Zein ondoriotara iritsi zarete taula hau bete ondoren?
- Nola irudikatu izan da emakumea euskal literaturan?
- Literaturak ematen duen ikuspegia emakumeek garai horretan bizi izan zutenarekin bat al dator?



Alava sarea dokumentaleko irudiak
Iturria: **Alava sarea**



Josu Martinezen *Ama* film laburren irudia
Iturria: **Gure oroitzapenak**



Kaxilda
Iturria: **Estelnegre**




3

ZAURIAK, ITXI ALA IREKI?

“Margarita arranguraz beterik zen. Seme-alabek, ezagutu ez zituzten aitona eta izeba hilobiratzen laguntzeari uko eta, gainera, amari errieta egin zioten, kontu zahar itsusi haiek berritzeko zeukan tema zela eta. Alferrikakoa izateaz gain, arriskutsua ere bazela uste zuten, kalte egiten ahal ziela. Ahantzi aspaldiko kaka hori guztia, erregutu zioten, gogoratzeak min ematen dizu.”

(*Golgota*, 212-213)



Ur handitan

- ▶ 2019ko urtarrilean, **Ur handitan** programan memoria historikoaren inguruan hitz egin zuten hainbat pertsonak. Bertan esandako hainbat kontu lagungarri egin dakizkizueke ondoren proposatu nahi dizuegun eztabaidarako: Zauriak, itxi ala ireki?

- *Ur handitan* saioan agertutako gonbidatuek esandako zenbait esaldi dituzue jarraian. Gurutzegrama honetan horiekin lotura izan dezaketen 6 hitz agertzen dira, taldeka jarrita, saia zaitezte topatzen, aukera desberdinak egon daitezke, eta horren inguruan eztabaida dezakezue.

Inpunitatea, egia, justizia, erreparazioa, aitortza, ez errepikatzea (berriz ez errepikatzeko bermea, alegia)

V	O	Y	I	L	Q	D	B	N	H	A	O	Z	P
W	I	V	D	A	I	F	B	H	O	U	Z	O	Z
O	Z	F	I	J	I	O	A	W	A	N	T	O	U
I	N	P	U	N	I	T	A	T	E	A	O	C	Y
E	M	Q	Y	E	I	H	B	U	L	U	T	I	Y
E	U	E	I	V	K	X	X	E	O	C	Z	I	L
F	E	J	A	E	G	I	A	E	I	E	Q	B	M
U	A	B	Y	D	C	A	E	K	F	O	H	N	E
S	S	G	E	I	D	O	E	M	Y	Y	I	D	C
J	U	S	T	I	Z	I	A	E	G	U	Z	F	Y
E	R	R	E	P	A	R	A	Z	I	O	A	N	Q
A	I	T	O	R	T	Z	A	C	B	H	L	A	V
E	Z	E	R	R	E	P	I	K	A	T	Z	E	A
C	K	O	O	X	T	O	B	M	S	G	B	Z	S

- Gurutzegrama honetan memoria historikoaz hitz egiten denean errepikatzen diren zenbait hitz agertu zaizkizue. Diktaturak, gerrak, gatazkak bukatzen direnean, hainbat kolektibotatik justizia, aitortza, ... eskatzen dira. Zer dela eta erabiltzen dira hainbeste?



MARI JOSE AZKARATE



Izekori zerbait zor diogu herri bezala. Oraindik gauza asko ari dira errepikatzen, eta gorrotoarekin, gainera.

JOSEFINA LAMBERTO




...que se acabe, que se diga la verdad, que no se tenga tanto odio, que salga la verdad: los mataron, pedir perdon, no volver a hacerlo más

JOSEBA EZEOLAZA



3400 pertsona baino gehiago erail zituzten, sekulako errepresioa egon zen, gorpuzkinak desagerrarazi zituzten, emakumeen kontrako bortxakeria sexualak, lapurretak,...

Sekulako garrantzia dauka Maravillas Lambertori enparantza baten izena jartzeak... hori ere justizia egitea da



► Azkenengo jarduera bezala, zuen arteko eztabaida proposatzen dizuegu. 1936ko gertaerek hainbat ondorio izan zituzten gizartean, eta oraindik orain hainbat kolektibok gertatutakoak azalatu nahian jarraitzen dute, hau da, garai horretan irekitako zauriak sendatu nahian. Guztiek, ordea, ez dute berdin pentsatzen, beste zenbaiten ustez gertatutakoa bere horretan utzi behar baita.


- Saia zaitzete, taldeka, argudio desberdinak bilatzen defendatu nahi duzuen edo defendatzea egokitu zaizuen iritzi horretan sakontzeko.





BIBLIOGRAFIA

- Apalategi, Ur (2010). Gerra Zibila Saizarbitoriaren Bihotz bi-n: literaltasuna, alegoria eta beste zenbait hipotesi. *Euskera* 54, (2-2), 1109-1126. Hemen eskuratua: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/74656.pdf>
- Berria (2016). *Oroiteria*. Hemen eskuratua: www.berria.eus/oroiteria
- Berri Txarrak (2009). Maravillas. *Payola* (CD). Chicago, AEB: Electrical Audio estudioa
- Egaña, Iñaki (2009, abuztuak 11). Maravillas. *Nabarralde*. Hemen eskuratua: <https://nabarralde.eus/maravillas/>
- EITB (2018). Alava sarea: emakume espioi ikusezinak [trailerra]. Hemen eskuratua: <https://www.eitb.eus/eu/telebista/bideoak/osoak/5566583/bideoa-alava-sarea-emakume-espioi-ikusezinak-dokumentala-etb1en/>
- Retozala, Iratxe (2018, ekainak 28). Genero gatatzak zeharkatzen du euskal literatura garaikidea (Maidier Galardik egindako elkarrizketa). *Berria*. Hemen eskuratua: https://www.berria.eus/paperekoa/1855/033/001/2018-06-28/genero_gatatzak_zeharkatzen_du_euskal_literatura_garaikidea.htm
- Galtzagorri eta Eusko Jaurlaritzako liburutegi zerbitzua (2017). *Booktuberboom*. Hemen eskuratua: <https://booktuberboom.wordpress.com/>
- Rueda, Mikel (2010). *Izarren argia* [trailerra]. Hemen eskuratua: <https://www.youtube.com/watch?v=OdCqCUiFhJ8>
- Kortazar, Jon (2018). Memoria, violencia y utopia en Antzararen Bidea (2007) / El camino de la oca (2008) de Jokin Muñoz, una novela vasca sobre la Guerra Civil. *Rassegna iberistica*, 41, (109), 119-134. Hemen eskuratua: https://edizionicafoscari.unive.it/media/pdf/article/rassegna-iberistica/2018/109/art-10.14277-2037-6588-Ri-41-109-18-8_ab12eKx.pdf
- Joly, Maud (2008). Las violencias sexuadas de la Guerra Civil española: paradigma para una lectura cultural del conflicto, *Historia Social*, 61, 89-107.
- Moztu Filmak (2010). *Debekatuta dago oroitzea*. Hemen eskuratua: https://www.youtube.com/watch?v=4CB_ncuS8V0
- Nieto Garcia, Jesús (2018, otsailak 16). Maravillas Lamberto, Florecica del camino. *Noticias de Navarra*. Hemen eskuratua: <https://www.noticiasdenavarra.com/2018/02/16/opinion/tribunas/maravillas-de-larraga-floreica-del-camino#Loleido>
- Orzaiz, Jon (2018, martxoak 25). Diktaturak ebatsi zien haurtzaroa. *Berria*. Hemen eskuratua: https://www.berria.eus/paperekoa/1962/006/001/2018-03-25/diktaturak_ebatsi_zien_haurtzaroa.htm
- Serrano Mariezkurrena, Amaia (2008). La memoria histórica inspiradora de la ficción en Antzararen Bidea de Jokin Muñoz. Hemen eskuratua: http://sedici.unlp.edu.ar/bitstream/handle/10915/16301/Documento_completo.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Serrano Mariezkurrena, Amaia (2012). Jokin Muñozen Antzararen bidea: oroitzapenei zabalduetako literatur leiho in Kortazar, Jon eta Serano, Amaia (arg.), *Gatazken lorratazak. Euskal arazoan isla narratiban 1936tik gaurdaino*. 123-162. Donostia: Utriusque Vasconiae.

- 
- Serrano Mariezkurrena, Amaia (2017). Construcción de género en la novela vasca sobre la Guerra Civil (1936-2011) in Momoitio, Iratxe eta Ana Teresa Núñez (arg.). *Memorias de guerra proyectos de paz. Violencias y conflictos entre pasado, presente y futuro*. (61-74). Gernika-Lumo: Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa.
 - Urhanditan (2018, abenduak 27). Memoria historikoa. Durango: Baleuko. Hemen eskuratua: <https://www.eitb.tv/eu/bideoa/ur-handitan-4-denboraldia/6266/150902/memoria-historikoa/>
 - Maravillas Lamberto (2008, ekainak 6) in *Wikipedia*. Hemen eskuratua: https://eu.wikipedia.org/wiki/Maravillas_Lamberto
 - Soledad Casilda Hernández (2011, abenduak 6) in *Wikipedia*. Hemen eskuratua: https://es.wikipedia.org/wiki/Soledad_Casilda_Hernández
 - 127/2016 DEKRETUA, Irailaren 6koa, Batxilergoko curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 182. zenbakia.



OBRA LITERARIOEN ERREFERENTZIAK

- Alberdi, Uxue (2009). *Aulki-jokoa*. Donostia: Elkar.
- Altube, Seber (1957). *Laztantxu eta Betargi*. Zarautz: Lur.
- Arrieta, Joxe Austin (1979). *Abuztuaren 15eko bazkalondoa*. Donostia: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.
- Arruti, Txomin (1937). *Loretxo. Eguna, 1937-02-14 / 1937-03-21*. Hemen eskuratua: <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/MendilautaLoretxo.htm>
- Eizagirre, Jose (1948). *Ekaitzpean*. Buenos Aires: Ekin.
- Goia, Garazi (2013). *Txartel bat (des)herrira*. Donostia: Elkar
- Izagirre, Koldo (1984). *Euzkadi merezi zuten*. Donostia: Hordago.
- Irigoien, Joan Mari (1982). *Poliedroaren hostoak*. Donostia: Erein.
- Iturralde, Joxemari (1989). *Izua hemen*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Montoia, Xabier (2008). *Golgota*. Donostia: Elkar.
- Muñoz, Jokin (2007). *Antzararen Bidea*. Irun: Alberdania.
- Sarrionandia, Joseba (2003). *Kolosala Izango da*. Tafalla: Txalaparta.
- Sarrionandia, Joseba (2018). *Gure oroitzapenak, poema musikatuak*. Donostia: Elkar.
- Ubeda, Garbiñe (2013). *Hobe Ixilik*. Donostia: Elkar.
- Zabaleta, Patxi (1995). *Badena dena da*. Tafalla, Txalaparta.

